



18/98 auzian eskualdeko inputatuak hasi dira deklaratzan

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Atzo deklaratu zuten
Egibarrek eta Olarrak

ZAILTASUNA ▶ Egibar: «ez
da trago erraza torturen
gainean publikoki jardutea»

XAKI ATALA ▶ Txapartegi
asteasuarrak datorren
astean deklaratuko du ▶ 6

JAIONE ASTIBIA



Aberri Eguna
ospatu dute
ehunka
lagunek bi
eskualdeetan

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

«Euskal Herriaren
naziotasuna» izan
dute aldarri ▶ 7

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Kataluniako
turistak batik
bat gurean

Balorazio ona egin
dute alorrekoek ▶ 4-5

hitza
argazki
lehiaketa



bidali argazkiak


ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
 - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
 - Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri
- OINARRIAK:** www.tolosaldeko-hitza.info

Sari
nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 lagunentzat 5 eguneko egonaldia,
mantenu erdiarekin
Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia
bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposer.com

ZOKETA
APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZaren mobila eta
mediko gerriko poltsa zozkatuko dira



NEKAZARITZA ▶

Sagardo ekologikoa xede

Herentzian jasotako lur-eremu batzuetan sagarrondoak landatzea erabaki zuen Koldo Lopezek; jasotako uztekin sagardo ekologikoa ekoiztea bururatu zitzaion



Koldo Lopez eta bere ikasleak Eskolepioetako sagarrondoak bi aste behin egiten dieten zaintza egiten. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

Sagardo ekologikoa ekoizten dute Koldo Lopez tolosarrak eta bere senitar-tekoek. Araban dute sagardotegia; Oñatitik (Gipuzkoa) bestaldera dagoen herri txiki batean, alegia. Familia hangoa zuen eta, ondorioz, lur-eremu batzuk jaso zituen anaiekin batera herentzian. Lopezek betidanik sentitu du naturarekiko gertutasuna. Beraz, duda gutxi izan zituen lursail horietan zerbait landatu behar zutela erabakitzerako unean; sagarrondoena izan zen otu zitzaion aukerarik egokiena.

Nekazari edo abeltzain izatea zuen xede txikitako ametsetan. Edonola ere, azkenean Biologia ikasketak egin zituen, eta Tolosako Eskolapioetan ari da irakasle lanetan aspaldidanik; noski, Natur-zientziak eta Biologia eskolak ematen dizkie ikasleei.

Duela zazpi urtetatik ari dira sagardoa egiten; orain dela hamar urte inguru hasi ziren pixkanaka sagarrondoak landatzen. Lehen uztak oso txikiak izan ziren, sagardo botila gutxi batzuk egiteko lain ematen zutenak. Hala ere, apurka-apurka uztak handitzen joan ziren. Oraindik ere, urtetik urtera



Etiketaren gainean dagoen sagardoa ekologikoa dela. HITZA

gehitzen ari da jasotzen duten sagar kopurua. «Sagarrondoak oraindik handitzen ari dira, urteak behar baitituzte guztiz heltzeko», azaldu dio HITZARI Koldo Lopez sagardogileak.

Familian egin duten proiektu honetan hainbat ania dabilza elkarlanean, sagardo ekologikoa ekoiztea jomuga nagusi dutela. Urtean zehar lan gogorra egin behar izaten dute, baina, ekoizpen ona izateko. Alde batetik, kanpoko lana dago: sagarrak kimatu, belarra moztu, lursailak zaindu... Bestetik, berrix, bodega barruko lana; sagarrak heltzen direnetik sagar-

do bihurtzerainoko lana, alegia. «Gure ekoizpena oso txikia da; beraz, bodegak ez digu lan handia ematen. Bodegatik at egiten dugun lana irizten dugu gogorra. Dena den, guk beste ofizio batzuk ditugu eta dena uztartzeak denbora ikaragarria kentzen digu», azaldu du Lopezek.

Hasieran sagardo arrunta egitea zuten jomuga; azkenean, ordea, ekologikoa egitea otu zitzaion. Dena dela, ekologikoa dela ziurtatzen duten etiketekin kaleratzen iaz hasi ziren. Lurrarekin duten bokazioa eta lotura ikaragarria denez,

ekologikoa egitea onena izango zela iruditu zitzaion. Sagardo arruntetik ekologikoa izateraino dagoen aldea gehienbat sagarrean dago, beharrezkoa baita sagar uzta ekologikoa izatea. Urtero analisiak egiten dizkiete sagarrondoek ekologikoak direla baieztatzeko. Gai nontzean, prozesua sagardo arruntaren antzekoa da. Lantzean behin, lursailen analisiak ere egiten dizkiete; izan ere, sailen mantenturako aurrez zerrendatuak dauden produktuak ez direla erabiltzen ziurta behar izaten dute. Behin sagarrak tolairean sartuta, sagardo arrunta egiteko erabiltzen diren hainbat produktu ere ez dauzkate baimenduta ekologikoa egiten dutenek.

Urtean bost mila botila inguru ekoizten dituzte. «Kopuru hori barregarria da hemengo edozein sagardotegik egiten dutena kontuan izanda», esan du sagardogile tolosarrak. Hala ere, hasi zirenetik gaur arte urtean ekoiztutako botila kopurua handitzen ari dira pixkanaka.

Hemendik aurrera ere handitzen joateko esperantza dute: «Hamar mila botila ingurura iristea da gure xedea; horiek dira gure sagarrondoekin lor daitezkeenak». Zifra horre-



KOLDO LOPEZ
SAGARDOGILEA

«Zorionez, bada produktu ekologikoak kontsumitzen dituen merkatua»

«Egun, urtean 5.000 sagardo ekologiko botila ekoizten ditugu; 10.000ra iristea da jarri dugun jomuga»

tara iristeko oraindik ere lan handia dutela egiteko azpimarratu nahi izan du, dena den.

Merkatua

Merkatuan harrera ona izan du sagardo ekologikoak. «Bada, zorionez, produktu ekologikoak kontsumitzen dituen merkatua», azaldu du Lopezek. Aitzitik, egun, produktu ekologikoen gainean dagoen merkatua ez da oso zabala; aniztasuna gutxi egon arren, «gure produktuak dastatu nahi dituen jendea badago, eta hori oso pozgarria da».

Ez da, baina, sagardoa saltzen duten produktu bakarra, horretarako ezinbestekoa den sagar uzta ere salgai izaten baitute ia urte osoan zehar. Hatik, askoz ere maila baxuagotan dabilza sagarren salmentan.

Sagardoa eta sagarrak saltzeko tokiak bodega bera edota nohizean behin joaten diren azoka bereziak dira. Hala ere, orain arte «berezko finkoen» artean sardu dituztela ia produktu guztiak adierazi du.

Irakasle lanak

Eskolak ematen dituen ikastetxean ere irakatsi nahi izan ditu lurra maitatzearen eta zaintzearen abantailak. Horregatik, ikasleen laguntzaz sagarrondo batzuk landatu zituen duela lauzpabost urte Eskolapioetako «hirugarren patioa» deitzen diotenean.

Bi aste behin joaten dira hamalau urtetako ikasleak zuhaitzei beharrezko zaintzak egitera. Eskola hori asko gustatzen omen zaie ikasleei. Lortzen dituzten sagar urria bodegan sagardoa egiteko erabiltzen dituzte, besteak beste.

TOLOSA ▶

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa emango dute

E. EZEIZA

Sorospen eta sorosle ikastaroak antolatuta ditu lehendabiziko aldiz Tolosan, Gipuzkoako DYA Bide Laguntza Elkar-teak.

Ikastaroak maiatzaren 3an hasiko dira, eta hiru astetan zehar, maiatzaren 23an izango dute azkena. Jesusen Alabak Ikastetxean, San Frantzisko Kalean, izango dira eskolak. DYAtik jakinarazi dutenez biztanle osoari irekita egongo dira, «aurrez ezagupenik izatea ez da beharrezkoa» nabarmendu dutenez. Ikasle kopuru mugatuarekin, matrikularen balioa 75 eurokoa izango da. Bestalde ikastaro amaierako frogak gaintzen dituenak, EHUrako bi kreditu jasotzeko aukera izango du, bai eta, sorosle titulua lortzeko ere.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ lurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ KULTURA

«Arrakasta handia» Indiako lurretan

Lehenengo kontzertua, Bangalore hirian eskaini zuten herenegun Tolosako Hodeiertz Abesbatzako kideek

ESTI EZEIZA

Hasi du dagoeneko Hodeiertz Abesbatzako Indian zehar berderatzi egunetan gauzatuko duen bira. Lehenengo kontzertua herenegun, Bangalore hiriko Chowdaiah Memorial Hallen eskaini zuten eta «izugarritzko arrakasta» izan zuen. 900 lagunetik gora bildu ziren aretoan, harrera beroa eginaz eskualdekoei.

Emanaldian euskal folkloreko zortzi pieza jo zituzten, horien artean *Maitia nun zira* P.T. Etcahunen abesti ezaguna, eta Mikel Laboaren *Nerea*. Bestetik, gaur egungo nazioarteko lanak ere abestu zituzten, bes-



Tolosako Hodeiertz abesbatzako kideak. HITZA

teak beste. Erresuma Batuko Phill Collinsen *One more night* kantua. Hala ere, entzuleek gehien eskertu eta txalotu zute-

na, indiar bi musikagileren lanak jo zituzteneko unea izan zen. Osasun arazoak direla eta,

Enrike Azurza Hodeiertz Abesbatzako zuzendaria ez da Indiarra joan. Azken ordurarte zalantzan egon bazen ere, medikuak etxean geratzeko gomendatu zion. Bere ordeiz, Xabier Sarasola beasaindarra joan da zuzendari lanetara. Goierritar honek 19 urterekin hasi zituen musika ikasketak, eta egun, bere jaioterriko Udal Eskolan dihardu irakasle bezala. Hala ere, Azurza izan da bidairako egitarau guztia antolatu duena, eta aurreko entseguak zuzendu dituena.

Hodeiertz izan da Indiako gobernuak formalki, bira bat egiteko gonbidatu duen Euskal Herriko lehenengo abesbatza. Bira hau, Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE), Indiako Harreman Kulturaletarako Kontseiluaren eta Tolosako Udalaren arteko elkarlanaren ekimena izan zen.

Lehen kontzertuaren ondoren, oparien trukaketak egin zituzten, indiarrek. Hurrengo emanaldia gaur izango dute, Mumbaiko JBT auditoriumean. Hemen, Gaps Choral Ensemble abesbatza indiarrekin batera ariko dira.

IBARRA ▶ KULTURA

Haur eta gaztetxoentzako emanaldiak aste osoan

Pailazoak, magoak eta ipuin kontalariak ariko dira ostirala bitarte Kultur Etxean

E. EZEIZA

Ibarrako kultura eta Gazteria Batzordeak Bazko Asterako, haur eta gaztetxoentzat egitarau berezia antolatu du. Ekitaldi guztiak doakoak izanik, Benito Izagirre Kultur Etxean gauzatuko dira goizeko 11:30ean. Halaber, arduradunek jakinarazi nahi dute, emanaldi guztiak puntualtasunez hasiko direla, eta behin hasiz gero, haletara sartzerik ez dela egongo. Honekin batera, haurrei, gaztetxoek, gurasoei zein aiton-amonen bertaratzeko gonbita luzatzen dute.

Gaurkoan, esaterako, Kiki, Koko eta Moko pailazoan txandaz izango da. «Kale giroko partaidetzako antzerkiaren ildo» jorratzen dute Azkona taldekoek, gorputz-mugimendua adierazbide eta giza-harremanetarako baliabidetzat hartuz. Euskal Herrian, eta Euskal Herriatik kanpo urteetan aritu ondoren, 1988an, Munduko Zirkoko pailazo ikuskizunean parte hartu eta handik jaio ziren orain ezagunak diren Kiki, Koko eta Moko pailazoak. Pailazo bakoitzak bere izaera du: Kiki pailazo jolastia da; Koko, alaiak; eta Moko, inozoa. Pertsonaia hauek



Txan Magoa, Adunan egindako emanaldian. IÑIGO ASENSIO

eskets ezberdinak aurkezten dituzte emanaldiaren arabera, zirkoko teknika-mota desberdinez baliatuta. Hau guztia musikaz alaituta, eta partaidetza bultzatzen duten jolas eta dantzetekin.

Biharkoan, berriz, Txan mago ariko da. Euskal Herriko mago ospetsuenetakoa den honek, bere trikimailuekin eta abileziarekin jendea harri eta zur uzten du. Urte asko daramatza majia egiten, eta telebistan ere askotan ikusi ahal izan dugu.

Eta etzi, Anjel Alkainen esku-

tik *Asto bat hipodromoan* ipuin kontaketa gozatzeko aukera izango da. Honela hasiko da Mauricio asto apainaren istorioa: «Lasartevech herrian hipodromo dago, oso belar berdea duen hipodromo. Udarekin batera, zaldiz betetako trana iristen da herrira. Euren jockeyekin etortzen dira zaldi zuriak, gorriak eta beltzak. Azkenik morroiak iristen dira. Inori ez zitzaion bururatu morroiak garrantzitsuak izan zitezkeenik. Baina behin, herriko bizimodua aldatu zuen morroi iritsi zen, Mauricio...

iragarki laburrak ▶

<p>EROSKETAK Lursaila. Zuhaitzak dituen lursaila erosiko nuke. Telefono zenbakia: 615 74 19 06.</p>	<p>Interesatuak deitu 656 19 78 45 telefono zenbakira.</p>
<p>SALGAI Etxebizitza. Villabona etxebizitza salgai: 3 logela eta terraza ederrarekin. Konpontzeko.</p>	<p>GALDUTAKOAK Txakurkumea. Hispanier txakurkume zuri-beltza desagertu da Belauntzan. Informazioa eskertuko eta sarituko genuke. Telefonoa: 689 89 24 34.</p>

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

TOLOSA ▶

Gutxitan
ikusitako giroa
Larunbat
Santuko azokan

PABLO ALBERDI

Lehenengo orduan botatako eurijesak Larunbat Santuko Tolosako azoka desitxuratu-ko zuela zirudien. Baina ez zen horrela gertatu. Eguraldiak asko hobetu zuen eta bertakoak eta kanpoakoak animatu zituen salmenta postuak bisitatzera.

Turisten presentzia nabarmena izan zen. Gure azokei buruz interesa agertu zuten eta baita salgai zeuden produktuei buruz ere, ohiko Tolosako babarrunetz eta Idiazabalgo gaztez gain. Egia esan, gutxitan ikusi dugu azoka hain giro onarekin.

Berdura plazan eskaintza oparotasuna bizi izan zen, aurreko egunetako eguraldi onaren eraginez. Trianguluan, neguko barazkien eskaintzak jarraitzen du, baina kopuru txikiagoan. Basoko eta fruta zuhaixken mintegi-zaleei dagokionez, datorren denboraldira arte itxi dute kanpaina.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Surfinia	2,20	2,40
Erromeria	4,00	6,00

Bertako produktuak

Intxaurra	2,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00

Produktu ekologikoak

Letxu	1,00
Aza	2,50 3,00

'18/98 AUZIA' ▶

Eskualdeko inputatuak
hasi dira beren
deklarazioak egiten

Mikel Egibarrek HITZARI azaldu dioenez, «ez da trago erraza izan jasandako torturak gogoratu eta publikoki adieraztea»

IMANOL GARCIA

Espainiako Auzitegi Nazionalean egiten ari diren 18/98 auzian eskualdeko inputatuak deklaratu hasi dira. Hiru inputatuak, Mikel Egibar, Joxe Mari Olarra eta Nekane Txapartegi Xaki atalean daude auziperatuta eta, bi asteko tartearen ondoren, atzo ekin zioten auziari atal horrekin. Mikel Egibar zizurkildarrak goizean deklaratu zuen eta Joxe Mari Olarra billabonatarrek arratsaldetan. Azken honek esandakoak, epaiketa-saiaoren amaiera ordua dela eta, ezin izan ziren jaso egunkariaren edizioa itxi aurretik. Nekane Txapartegi asteasuarrak seguruenik datorren astean deklaratu du.

«Ez da trago erraza izan», adierazi dio HITZARI Mikel Egibarrek deklarazioari buruz. «Jasandako torturak gogoraztea eta horiei buruz publikoki hitz egitea ez da atsegina». Bestalde, deklarazioa «indar berezi batekin» egin duela esan du, torturak salatu eta horiek «jasatzearen arrazoiak» komunikatu dituelako.

Atxilotu ondorengo bere deklarazioa torturen bitartez hartu zutela azaldu du Egibarrek epaiketan. «Muntai politiko hutsa» dela salatu eta torturapeko bere deklarazioan oinarritu eta osatu dela Xakiko sumario osoa azaldu du. Euskaraz hasi bazuen bere deklarazioa ere,



Mikel Egibarrek atzo egin zuen deklarazioa 18/98 auzian; Nekane Txapartegik datorren astean egingo du berea. I. GARCIA

jasandako torturak adieraztean gazteleraz mintzatu zen, Auzitegi Nazionaleko itzulpegi-tz sistema «ez baizuten egoera hori behar bezala adierazten». «Itzulpegiak hitz egiten zuen itzulpegi eta jasandako torturen dimentsio osoa ez zen adierazten itzulpen mota horrekin», adierazi du zizurkildarrak.

Beste inputatuek bezala, fiskaltzaren eta akusazio partikularraren galderei ez zien erantzun eta bai bere defentsak egindakoei. Deklarazioaren amaieran tira-bira ere izan zen, Egibar Xakiren ilegalizazioaren arrazoiak esplikatzen ari

zenez eta nazioartean ematen diren kontrako beste kasu batzuek aipatu zituenean; «Espainiako Estatuak ez bezala, Quebec-en eta Belgikan heldutasun politikoa erakutsi dute» adierazi zuenean, epaileak deklarazioa moztu zuen.

Defentsaren protesta medio, beste bi minutu izan zituen Egibarrek deklarazioa jarraitzeko eta jasandako inkomunikazioaren bukaeran guardia zibil batek esandakoa egia izango ote zen galdetu zien epaileei: «Nahi baduzu guztia ezeztatu, torturatu izan zarela esan, baina horrek ez dizu ezertarako balioko».

ANOETA ▶

Herri kirolen
ekitaldia
antolatzeko bilera

Festa Alternatiboen baitan egingo den herri kirol ekitaldia antolatzeko bilera egingo dute gaur, 19:30ean, udal-etxean. Aurreko bi urtetan sega apustua egin zuten eta aurten zer egingo duten erabakitzeko bildu nahi dute.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita
izango dute
bihar KZgunean

Tutorearen bisita jasoko dute bihar KZgunean, 09:00etatik 13:00etara. Asteburu bat Euskal Herrian: Interneten bidez asteburu baterako aktibitateak antolatzeko ikasi mintegia eskainiko du, 10:00etatik 12:00etara.

LEABURU ▶

KZguneak
tutorearen bisita
jasoko du gaur

Leaburu-Txaramako KZguneak tutorearen bisita jasoko du gaur, 16:00etatik 20:00etara. Zure aseguruak kontratatu mintegia emango du 17:00etatik 18:00etara.

EUSKARA ▶

Euskara ikasleak
etxean hartzeko
aukera

Euskara ikasleak etxean hartu nahi dituzten familiek www.egonaldiak.net bisitatu edo Urrats euskaltegira deitu (943 47 44 47) dezakete.

iragarki laburrak ▶



Alkiza. Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotua eta hiru solairu.

Alkiza. Familia bakarreko txaleta salgai, 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berria. Dena kanpoaldera. Ilogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko, lau logela, bi bainugela, egongela, sukaldia eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belautza. Bi familientzako etxea salgai, bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

Berastegi. Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m2-ko lursailarekin.

Ibarra. Berrituriko etxebizitza beheko solairuan, 30 m2 dituen bulegoarekin. Ezinhobea ezinduentzat.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezinhobea. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Santa Maria plazan

etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela eta komuna. Egoera ezinhobea.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldia terrazarekin, bainugela eta komuna, garajea itxia.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakusleho.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Izkina egiten duen 45 m2-ko lokal ederra salgai.

OREXAKO UDALA

IRAGARKIA

Orexako Udalak, 2006ko Martxoaren 6an egindako bilkura nagusian, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketa arautuko duen baldintza ekonomik-administratibo berezien pegua onartu zuen.

Hori dela eta, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketan parte hartzeko norbait interesatua egonez gero, Baldintza Pleguak diotena beteaz, bere izena Orexako Udaletxean eman behar du, HOGEITASEI EGUNetako epean, hau da: Maiatzaren 15 bitartean, Udaletxeko lan-ordutegia hau da: Astearte eta Ostegunetan, 10etatik 14ak bitarte. Telefonoa: 943 682 029.

Orexan, 2006ko apirilaren 18an.
ALKATEAK

ABERRI EGUNA ▶

Ehunka lagunek aldarrikatu dute «Euskal Herriaren naziotasuna»

Tolosaldean eta Leitzaldean askotariko ekitaldiak egin zituzten igandean, Udalbiltzaren deia jarraituz



Aduna. Herriko plazan egin zuten ekitaldia. Aurretik EHNaren tramitazioa egiteko aukera izan zuten. Dagoeneko, 72 lagunek egin dute euren euskal herritartasunaren aitormena. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Euskal Herri osoan bezala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan ere, Abarri Eguneko ospakizun ekitaldiak egin zituzten, igande eguerdi artean, hainbat herritan, Udalbiltzak egindako deia jarraituz.

Guztietan «Euskal Herria, nazioa, Euskal herritarren eskubideen aldeko konpromiso sendoa» izan zuten aldarri, eta halaxe adierazi zuten, Udalbiltzak egun hartarako prestatu zuten deklarazioaren irakurketa eginez. Ziotenez, «oraindik asko badugu ere egiteko», eta baikor agertu ziren, izan ere euren iritzian «nabaria da herri honek egin duen lan luze eta eskerge fruituak ematen ari dela, bai nazio eraikuntzari dagokionez, bai gatazka konpontzeari dagokionez ere».

«Guztion artean»

Zentzu horretan, aitatu zuten 55 eragilek adosturiko Oinarritzko Hitzarmen Demokratikoa bera, «atxekimenduak

gehitu eta printzipioak zabalteko» abiapuntu gisa. «Guztion artean» eta «arduraz jokatuz» sortzen ari diren aukerak «baliatzen asmatu beharra» azpimarratu zuten. Bide horretan Udalbiltzak berak bere konpromiso eta lan ildo iragarri zituen: «Eskubide guztiak, euskal herritar orori, Euskal Herri osoan».

Aldarrikapen irakurketekin batera festa ikututa ere izan zuten egunak, noski. Esate baterako, halaxe egin zuten, Adunako plazan, 50 bat lagunek: txistularien eta herriko dantzarien laguntzarekin, ikurrinari *Agurra* dantzatu zioten eta ondoren hamaiketako egin zuten. Villabonan beste hainbeste egin zuten 86 lagunek. Kasu honetan baina, udaletxeko balkoia erabiltzen ez zieten utzi, eta plazan egin zuten. Tolosan, beste 100 bat lagun elkartu ziren Plaza Zaharrean. Leitzan, berriz, aurrena manifestazioa egin zuten herrian barrena 98 lagunek eta ondoren plazan burutu zuten ekitaldia, hamaiketakoarekin bukatzeko.



Leiza. Txistularien soinuak, manifestazioa eginez zeharkatu zuten herria ekitaldiaren aurretik. J. ASTIBIA



Villabona. Ikurrinekin batera, presoen Euskal Herritarzearen aldeko ikurrak ere baziren. L. ETXEBERRIA

Ikurrina jarri eta kendu

Leitzako herritar talde batek jakinarazi duenez, Abarri Egunaren ospakizunak zirela eta herriko udaletxeko balkoian eta erlojuan ikurriñak jarri omen zituzten, eta salatu dutenez «igandean goizeko 9:00etarako balkoiekoa 'desagertua'» zegoen. Ez hala, erlojukoa eta balkoian bertan zintzilikatutako *Independentzia* zioen pankarta.

2004ko azaroan, udaletxeko balkoian ofizialki zegoen ikurrina kendu zutenetik, hainbat aldiz azaldu da jarrita ikurra, masta hutsean, eta beste hainbestetan kendu izan dute. ◀



Ikurrinik gabe ageri zen. J. A.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

